

Ikus-entzunezko lanen 9. lehiaketa
“Eman minutu 1 INTERKULTURAREN alde”

OINARRIAK

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa nazioarteko borondatea duen euskal GKE bat da, eta joan den 27 urteotan Bakearen Kulturaren eta Giza Garapen Iraunkorraren alde ari da lanean, eskubideak eta erantzukizunak, biak, aintzat hartuko dituen kulturaren alde; pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza- eta kultura- komunitateak eta herriak aintzat harturik, hiritargo globa demokratikoa eraikitzeke lan egingo duen mundu baten alde. Horixe da, hain zuzen, UNESCOk, eratu zenean, bere gain hartutako xedea: bake bidezkoa eta duina eraikitzea, pertsona eta haren duintasuna eta balio gorenak ardatz harturik.

“Eman minutu 1... ren alde” lehiaketaren irabazleak izango dira ikus-entzunezko lan onenak eta giza eskubideak hoberen defendatu, bultzatu, aldarrikatu, zabaldu eta kontziazten dutenak.

Guztiak berdinak garela eta eskubide eta betebeharrak berberak ditugula aldarrikatzen du **“Eman Minutu 1”** lehiaketak, eta denok defendatu behar ditugula pertsona guztien eskubideak. Inork ere ezin ditu eskubide horiek saihestu eta, hortaz, eskubideok urratzen diren tokian horiek babesteko betebeharra du.

Hauek dira UNESCO Etxearen
“Eman minutu 1 INTERKULTURAREN alde”
Ikus-entzunezko lanen 9. lehiaketaren
OINARRIAK

1. Hauek izango dira SARIAK, bost kategorietan:

- **EMAN MINUTU 1.** *Kategoria nagusia eta sari gorena.*

SARIA: Nestor Basterretxearen “Estela Solidaria- Hilarri Solidarioa”.
Dokumentalaren errealizazioa finantzatuko da, guztira 5.000 euroko
zenbatekoan.

**(Saria materia fiskaleko indarreko erregulazioan jarritakoari lotuta
egongo da)*

Lan irabazlea epaimahai espezializatu baten irizpideen arabera aukeratuko da,
lehiaketaren oinarriak betetzen baldin baditu.

- **EKIN ETA EGIN SARIA**

SARIA: Bideo-kamera + garaikurra

Ikastetxe, gazteen kultura-elkarte eta abarrei zuzendura dago sari hau; 18
urtetik beherakoei, beti ere. Gazteek bakarka edo taldean aurkeztu ahal izango
dute beren lana.

- **UNESCO ETXEA SARIA**

SARIA: Bideo-kamera + garaikurra

Kategoria honetan irizpide hau balioetsiko da: mezua eta mezu hori
zenbateraino datorren bat UNESCOk, eratu zenean, Giza Garapen Iraunkorra
lortzeko bere gain hartu zuen helburuarekin.

- EUSKARAZKO MINUTURIK ONENA SARIA

SARIA: Bideo-kamera + garaikurra

Euskarazko minuturik onena.

- EIKEN AIPAMENA

SARIA: EIKEN- Euskadiko Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Klusterra eta haren enpresak presente dauden eduki-merkatuetan izena ematea. Antolatzen diren hitzaldi eta ekitaldietara joateko aukera egongo da.

Euskadiko ikus-entzunezko piezarik onena sarituko da, hau da, teknika digitalen erabilera hobekien bultzatzen duena. Kalitatezko proposamena, berritzailea eta orijinala izan beharko du, aurretik saritu gabea. Halaber, aintzat hartuko da proiektua etorkizunean bideragarria izatea eta egilea 30 urtetik beherakoa izatea.

2. "Eman minutu 1 INTERKULTURAREN alde" ikus-entzunezko piezen nazioarteko lehiaketak honako hauek izango ditu gaitzat aurten: aniztasunean eta kulturartekotasunean elkarrekin bizitzeko eskubide unibertsala; tolerantzia eta berdintasuna; eta balioetan oinarritutako hezkuntza, pertsonen desberdintasunen kausak uler ditzaten eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin bat egiten duen mundu bat defenda dezaten.

Izan ere, kultura-eskubideak giza eskubideen parte dira, eta, gainerako eskubide guztiak bezala, unibertsalak, zatiezinak eta elkarren mendekoak dira.

Aurkeztutako piezek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 27. artikulua izango dute oinarri:

1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.
2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egille diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

Epaimahaiak alderdi hauek baloratuko ditu bereziki:

- Bideoek kultura-aniztasuna lantzea, hau da, errealitate kultural asko daudela erakustea; eta kulturartekotasuna lantzea, kulturen arteko harremana.
- Bizitza kulturalerako eskubidean elkarrekin aritzeko, elkarrekin bizitzeko eta parte hartzeko dugun moduari buruzko gogoeta sustatzen duten bideoak, kulturartekotasuna kulturen interakzioaren aldeko apustua egiten duen bake-bidetzat hartuta.
 - Aniztasun kulturala, arrazagatikoa, soziala, indentitarioa, genero eta politikoa onesten duten lanak.
 - Giza Eskubideak eskatzeko pertsonen ahalmenak eta estrategiak, bai indibidualki, bai kolektiboki.
 - Bidezkoa, irekia eta solidarioa den munduaren aldeko borrokan jarduten duen gizartea, giza eskubideen urraketan aurka egiten duena erantzun kolektiboak eskatuz.
 - Ez da tonu, paternalista, biktimizatzaile eta sentsazionalistarik erabiliko.

3. Edoizein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira lanak eta honako formatu hauetakoren batean: mov, avi, flv, mpeg, mp4. Gehienez ere minutu bateko iraupena izango dute, kreditu-tituluak kontuan hartu gabe (ez da beharrezkoa kreditu-titulu horiek sartzea).

4. Pertsona bakoitzak nahi beste ikus-entzunezko lan aurkeztu ahal izango ditu. Ikus-entzunezkoa taldean egin daiteke, baina saria pertsona bakar bati emango zaio.

5. Lanak filmatzeko telefono mugikorra, Iphonea, PDA, Webcamak, argazki-kamera edo bideo-kamera digitala erabili ahal izango dira, baina lanak aurrez adierazitako bost formatuetako batean (mov, avi, flv, mpeg eta mp4) eta ahalik eta bereizmen handiengan aurkeztu beharko dira. Lanak egiteko edozein teknika edo postprodukzio mota erabil dezakete egileek.

6. Lehiaketaren web-orriaren bidez egin behar da izen-ematea.

<http://dame1minutode.org>

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

1 eranskina edo 2 eranskina beteta, dame1minutode@unescoetxea.org helbidean, aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

- 1 Eranskina. Norbanakoen baimena: ama/aitaren zein legezko tutoreen baimena adin txikikoek lehiaketan parte hartu dezaten.
- 2 Eranskina. Taldekako baimena: ikasgela, hezkuntza zentroa, gaztelekua edo elkarte bezala aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da, zentroa bera izango delarik banakako baimenak jasotzearen arduraduna.

7. Lau modu daude lanak guri helarazteko:

- e-postaz: dame1minutode@unescoetxea.org (10MB gehienez).
- Onedrive, Googledrive, iCloud Drive, WeTransfer edo Dropbox bidez
- Posta arruntaren bidez
- UNESCO Etxera bertaratuta (Uribitarte pasealekua 12, 2.lokala. 48001 Bilbo)

Egile bakoitzak bere gain hartuko ditu bidalketa-gastuak.

Youtube-erabilera ez da onartuko bideoen bidalketarako.

8. 2019ko urtarrilaren 31an, 23:59an bukatuko da izena emateko eta lanak bidaltzeko epea (egun horretatik aurrera bidalitako lanak ez dira lehiaketan sartuko).

9. Lanak originalak izango dira. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko aurkeztutako lanek egile-eskubideen arloan egin ditzaketen arau-haustekak.

10. Lehiaketaren antolatzaileek eskubidea izango dute zenbait lan kanpoan uzteko. Hain zuzen, lehiaketaren gaiarekin loturarik ez duten edukiak dituztenak edo kalitatezko baldintza tekniko gutxienekoak betetzen ez dituztenak.

11. Lanen egileek lehiaketari utziko dizkiote obrak erreproduzitzeko, komunikatzeko eta jendartean banatzeko eskubideak, baina egilea nor den adierazita erabiliko dira beti ere eskubide horiek.

12. UNESCO Etxeak arlo horretan eta ikus-entzunezkoetan adituak diren pertsonak izendatuko ditu epaimahaia osatzeko. Publikoki jakinaraziko da nork osatuko duen epaimahaia.

13. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

14. Epaimahaiak eman gabe utzi dezake sarietako bat edo sari guztiak.

15. Lehiakideek, lehiaketa honetan parte hartzean, onartu egiten dituzte hemen adierazitako oinarriak.

16. UNESCO Etxeak lan sarituak zein diren jakinaraziko die partaideei, eta lehiaketaren jarraipena egingo du web-orriaren bidez.

17. Partaide bakoitzak bere gain hartuko du Sari banaketara joateko gastuak.

18. Lehiaketari buruzko beste edozein informazioen berri jakiteko, UNESCO Etxera jo dezakezue, www.dame1minutode.org eta www.unescoetxea.org bisita ditzakezue edo e-mail bat bidal dezakezue helbide honetara: dame1minutode@unescoetxea.org. Lehiaketa amaitu arte, *Facebook*, *Twitter* eta *Instagram* gizarte-sareetan, **@dame1minutode** kontuan, eguneratuko da informazio guztia.

Antolatzailea



Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea



- centro unesco euskal herria
- centre unesco pays basque
- unesco centre basque country

- Miembro del Movimiento
de Clubes, Centros y
Asociaciones para la UNESCO

- UNESCOrentzako Klubak,
Zentroak eta Elkardeen
Mugimenduko kidea

Babesleak



Laguntzaileak



DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten da partaideen datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean jasoko direla eta fitxategi hori lehiaketa hau kudeatzeko eta egoteko baina ez dela erabiliko.

UNESCO Etxeak antolatutako jardueri buruzko informazioa jasotzea eskatzen duten pertsonen datuak horretarako bestetarako ez dira erabiliko.

Eskubidea duzu fitxategian zuri buruz jasotako datuetara sartzeko, datu horiek ezeztatze, zuzentzeko edo horien kontra egiteko. Horretarako, eskabidea egin behar duzu info@unescoetxea.org helbide elektronikora mezu bat bidalita, 94 427 64 32 telefono zenbakira deituta edo UNESCO Etxearen egoitzara bertaratuta UNESCO Etxea. (Uribitarte, 12, 2.lokala. 48001 Bilbo).

1 ERANSKINA



AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA ADINGABEKOEK “EMAN MINUTU 1” LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....andreak/jaunak, adinez nagusi,zenbakidun
NAN duena, eta.....jaunak/andreak, adineznagusi,zenbakidun
NAN duena, helbidea.....n dutenak,.....telefono zenbakiarekin,
.....adingabekoaren (.....urte dituen eta.....e-
maila duena) ama / aita (edo tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik.

ADIERAZTEN DUGU:

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure.....alabari/semeari, “Eman Minutu 1” Lehiaketan parte hartzeko, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n

**Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrek badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.*

2 ERANSKINA



IKASTETXEAREN, GAZTELEKUAREN EDO ELKARTEAREN BAIMENA “EMAN MINUTU 1” LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....andreak / jaunak, adinez nagusi,..... NAN zenbakiarekin, helbidean,telefono-zenbakia eta.....e-maila dituenak, ikastetxearen, gaztelekuaren edo elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-ordezkarien baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU:

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, BAIMENA EMATEN DIEGU, ERARIAZ, “Eman Minutu 1” Lehiaketan parte hartzeko, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n